# kontsumo iraunkorra
# consumo sostenible

## 15. Udalaren baldintza-orriak ingurumen-irizpideekin osatzea

## 15. Ambientalización de pliegos municipales

Donostiako Udaleko eta mendeko erakundeetako iraunkortasun irizpideak dituzten baldintza-orrien urtetik urterako bariazioa. Goranzko joera izatea da helburua.

Variación interanual en el número de pliegos en los que se han introducido criterios de sostenibilidad, tanto en el Ayuntamiento de San Sebastián como entidades dependientes. La tendencia deseable es el aumento.

| | |
|---|---|
| 2014an ingurumen-irizpideekin egindako baldintza-orri kopurua<br>Número de pliegos ambientalizados en 2014 | (a) |
| 2013an ingurumen-irizpideekin egindako baldintza-orri kopurua<br>Número de pliegos ambientalizados en 2013 | (b) |
| $\left(\left(\frac{a}{b}\right)\cdot 100\right) - 100$ | |
| **Urteko bariazio-tasa: % 80** | **Tasa de variación anual: 80 %** |




Iturria: Donostiako Udaleko Finantza Zuzendaritza eta Ingurumen Osasunaren eta Jasangarritasunaren Zerbitzua.
Fuente: Dirección Financiera y Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad del Ayuntamiento de San Sebastián.

2014an 18 baldintza-orri osatu dira ingurumen irizpideekin, eta beraz, 2013. urtearekiko, urteko bariazio-tasan % 80ko igoera. Ingurumen Osasunaren eta Jasangarritasunaren Zerbitzuak 5 baldintza-orrien osaketan hartu du parte zuzenean. Gainontzeko baldintza-orrietan, 18 osatzeraino, Udaleko sail eta erakunde desberdinek sartu dituzte ingurumen-irizpideak. Guztira 51 baldintza-orri osatu dira ingurumen-irizpideekin, 2005ean kontratazio publikoan ingurumen-irizpideak sartzeko prozesua hasi zenetik. 2014an ingurumen-irizpideen arabera egindako baldintza-orrien helburua da, besteak beste, kale garbiketa, kiroldegietako venging zerbitzua, lorezaintza, galtzada margotzea eta Musika Eskolako musika-tresnen garraioa.

En 2014 han sido 18 los pliegos ambientalizados, un incremento del 80 % con respecto a 2013. El Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad ha intervenido directamente en la ambientalización de 5 pliegos; el resto, hasta completar los 18, han sido ambientalizados en los diferentes departamentos y entidades competentes del Ayuntamiento. En total, han sido 51 los pliegos ambientalizados desde que se inició el proceso en 2005 de introducir criterios ambientales en la contratación pública. Los pliegos ambientalizados en 2014 tienen por objeto, entre otros, la limpieza viaria, el servicio de vending en los polideportivos, la jardinería, el pintado de la calzada y el transporte de los instrumentos de la Escuela de Música.

## 16. Material suntsikorraren Erosketa Berdea

Erosketa Berdearen irizpideen bitartez eskuratutako material suntsikorraren gastu osoa, Udalak material suntsikorra erosteko xedaturiko aurrekontu osoarekin alderatuta. % 100 lortzea da helburua. Erosketa Berdea deitzen zaio, produktuen alderdi ekonomiko eta teknikoez gain, produktuek bizi-ziklo osoan ingurumenari eragin diezaioketen eragina aintzat hartuta egiten den erosketari edo kontratazioari.

## 16. Compra Verde de material fungible

Total del gasto de material fungible adquirido mediante criterios de Compra Verde sobre el total del presupuesto destinado a la compra de material fungible por parte del Ayuntamiento, siendo la tendencia deseable alcanzar el 100 %. Se entiende por Compra Verde la compra o contratación de productos que consideran no solo aspectos económicos o técnicos sino que tienen en cuenta también el impacto ambiental de los mismos en todo su ciclo de vida.

| | |
|---|---|
| Material suntsikorraren erosketa berdean gastatutakoa<br>Gasto en compra verde en material fungible | (a) |
| Material suntsikorra erosteko aurrekontu osoa<br>Presupuesto total en material fungoble | (b) |
| $\left(\frac{a}{b}\right) \cdot 100$ | |
| **Erosketa berdearen tasa: % 88** | **Tasa de compra verde: 88 %** |




Iturria: Donostiako Udaleko Kontratazio eta Erosketen Saila.
Fuente: Sección de Contratación y Compras del Ayuntamiento de San Sebastián.

2014an Udalak material suntsikorrean gastatutako 292.028 €-etatik % 88 erosketa berdea izan da, 2013. urtearekin alderatuz portzentajeko 1,6 puntu gutxiago. 2014an Udalak erositako material suntsikorren % 88 inguru "produktu berdeak" kategorian sartzen da, 2013ko portzentaia baino handiagoa, urte hartan % 85 izan bait zen.

De los 292.028 € gastados en 2014 en material fungible en el Ayuntamiento, un 88 % ha sido compra verde, representando un decremento de 1,6 puntos porcentuales respecto a 2013. En 2014, alrededor del 88 % de las referencias de material fungible adquiridas por el Ayuntamiento entran en la categoría de "productos verdes", porcentaje superior a 2013, en el que se alcanzó el 85 %.

## 17. Kontsumo iraunkorra sustatzea

## 17. Incentivación del consumo sostenible

Jarduera kopuruaren urteko bariazioa, eta Udalak kontsumo iraunkorra sustatu eta pizteko ekintzetarako xedaturiko aurrekontua. Goranzko joera izatea da helburua.

Variación anual en el número de actuaciones y presupuesto destinado por el Ayuntamiento a acciones de promoción y fomento del consumo sostenible. La tendencia deseable es el aumento.

| | |
|---|---|
| 2014an xedaturiko aurrekontua<br>Presupuesto destinado en 2014 (a) | 2013an xedaturiko aurrekontua<br>Presupuesto destinado en 2013 (b) |
| $\left(\left(\frac{a}{b}\right)\cdot 100\right) - 100$ | |
| **Urteko bariazio-tasa: % -16** | **Tasa de variación anual: -16 %** |

| | |
|---|---|
| Jarduera kopurua 2014an<br>Número de actuaciones en 2014 (a) | Jarduera kopurua 2013an<br>Número de actuaciones en 2013 (b) |
| $\left(\left(\frac{a}{b}\right)\cdot 100\right) - 100$ | |
| **Urteko bariazio-tasa: % 0** | **Tasa de variación anual: 0 %** |




Iturria: Ingurumen Saila, Erosketa Saila, Fundación Cristina Enea Fundazioa.
Fuente: Departamento de Medio Ambiente, Departamento de Compras, Fundación Cristina Enea Fundazioa.

Udalak sustatutako kontsumo iraunkorraren ekintza- kopurua berdin mantendu da 2014an, eta aurrekontuaren urteko bariazioa % 16 jaitsi da. Kontuan hartu behar da ekintza askok, gainera, gasturik eragiten ez dutela. 2014. urtean nabarmentzekoak dira Donostitruk, 2016ko Hiriburutzarako gunean hilabetero ospatzen den merkatu herrikoia, JantziAgain, arropa trukaketa eta joskintza tailerra dituen hileroko saioa, Haziera, haziak eta beren inguruko jakinduria zabaltzeko eta partekatzeko leku iraunkorra, eta baita Saretuz, kontsumo kontziente eta eraldatzailearen aldeko sare donostiarraren baitan kontsumo iraunkorragoa, kontzienteagoa eta bidezkoagoa lortzeko egindako sentsibilizazio eta sustatze ekintzak.

En 2014 el número de actuaciones de consumo sostenible promovidas por el Ayuntamiento se ha mantenido y la variación anual del presupuesto ha decrecido en un 16 %. Se debe tener en cuenta que muchas actuaciones no implican gasto. Entre las actuaciones de 2014, destacan iniciativas que se van asentando, como Donostitruk, el mercado popular de segunda mano que mensualmente se realiza en el espacio de la Capitalidad 2016, JantziAgain, espacio mensual de intercambio de ropa y taller de costura, Haziera, lugar permanente de intercambio de semillas y conocimiento, así como las acciones de sensibilización y fomento de un consumo más sostenible, consciente y justo de Saretuz, la red donostiarra por un consumo consciente y transformador.

## KONTRATAZIO PUBLIKO ARDURATSUA, HORNIDURA, OBRA ETA UDAL-ZERBITZUEN KONTRATUETAN

Donostiako Udaleko *kontratazioan gizarte, ingurumen, etika, lan eta berdintasun irizpideak sartzeko jarraibideak* eta baita berauen gauzatzea errazten duen gida ere onartu ziren 2013ko ekainaren 21eko Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren bidez.

2014ko uztailaren 24an, Tokiko Gobernu Batzarrak kontratazioan gizarte klausulen aplikazioaren jarraipen eta ebaluaketa burutzeko Batzorde teknikoaren sorrera onartzea ebatzi zuen.

2014ko apirilaren 11an, Kiroletako Udal Patronatuko Zuzendaritza Batzordeak aipatutako jarraibideak eta gida onartu zituen, egin beharreko egokipenak eginez, bai kontratazioen zenbatekoa bere baliabide propioen % 5 baino gehiago bada, bai esleipenak lau urte baino gehiago irauten badu.

2014an hemezortzi baldintza-orri osatu dira ingurumen-irizpideekin. Halaber, bi baldintza-orritan berdintasun irizpideak txertatu eta beste bitan bidezko merkataritzari lotutako irizpide etikoak erantsi dira. Bestalde, gizarteratzeko eta laneratzeko (Enplegu Zentru Bereziei erreserbatutako partaidetza) irizpideekin osatutako baldintza-orriak bi dira.

**Ingurumen irizpideak** txertatu dituzten baldintza-orriak honako hauek dira:

- Sagüeseko zabalunean izozkiak saltzeko kiosko bat jartzeko bide publikoaren erabilera pribatua.
- Udal eraikinen garbiketa zerbitzuak (bi plegu).
- Ur eta estolderi sareak konpontzeko zerbitzuak.
- Udaleko ibilgailuen erregaiaren horniketaren esparru akordioa.
- Renting bidez 8 ibilgailu hornitzeko.
- Bide garbikuntza eta hari atxikitako zerbitzua.
- Sorospen etxeko zerbitzu kudeaketa.
- Udalbatza aretoa eztabaida sistema batez hornitzea eta istalatzea.
- Donostiako Udalerako poltsa konpostagarren hornidurarako esparru akordioa.
- “Lo.05. Txomin Enea” hirigintza esparruko gauzatze unitatea (a.i.1. jarduketa integratua) gauzatzeko hirigintza emakida.
- Urgull mendiaren hegoaldeko magalaren azpialdeko urjausien babes neurrien proiektua.

## CONTRATACIÓN PÚBLICA RESPONSABLE EN LOS CONTRATOS DE SUMINISTROS, OBRAS Y SERVICIOS MUNICIPALES

El 21 de junio de 2013 la Junta de Gobierno Local aprobó las *Instrucciones para la incorporación de los criterios sociales, ambientales, éticos, laborales y de igualdad en la contratación del Ayuntamiento de San Sebastián*, así como la Guía para la incorporación de las mismas. El 24 de julio de 2014, la Junta de Gobierno Local aprobó la creación de la Comisión para el seguimiento y control de la aplicación de las cláusulas dimanantes de la Instrucción en las contrataciones realizadas en el Ayuntamiento.

El 11 de abril de 2014, la Junta Rectora del Patronato Municipal de Deportes de San Sebastián aprobó las Instrucciones y Guía anteriores con las adaptaciones procedentes, tanto en las contrataciones de cuantía superior al 5 % de sus recursos ordinarios, como en las concesiones que tengan una duración superior a los 4 años.

En 2014 han sido dieciocho los pliegos publicados por el ayuntamiento que insertan criterios medioambientales. Asimismo, dos pliegos han incorporado criterios de igualdad y otros dos han incluido aspectos éticos relacionados con el comercio justo. Además, dos pliegos han recogido criterios de inclusión social y laboral, reservando la participación en la licitación a Centros Especiales de Empleo.

Los pliegos que han insertado **criterios medioambientales** son los siguientes:

- Uso privativo de la vía pública mediante la instalación del quiosco para venta de helados envasados en la explanada de Sagües.
- Servicios de limpieza de edificios municipales (dos pliegos).
- Servicios de reparación y/o renovación de las redes de abastecimiento y saneamiento municipal.
- Acuerdo marco para el suministro de de carburantes a los vehículos municipales.
- Suministro mediante renting de 8 vehículos.
- Servicio de limpieza viaria.
- Gestión de la Casa de Socorro.
- Suministro de un sistema de debates para el salón de plenos.
- Contrato marco y primer contrato derivado para el suministro de bolsas compostables.

- Errepidetako arrastoak eta bestelako markak margotzeko zerbitzu kontratua.
- Kale eta bideetako zoruak konpondu, berritu eta mantentzeko zerbitzuak.
- Jabari publikoaren erabilera pribatiboaren baimena Kiroletako Udal Patronatuko languneetan elikagai solidoak eta likidoak saltzeko makinak instalatu, mantendu eta ustiatzeko.
- Lorezaintza orokorraren eta aisialdiko soropilaren mantentze zerbitzuen prestazioa, hainbat kirol ekipamendutan.
- Erakunde autonomoaren ekitaldi eta entseguetarako garraio, muntaketa eta laguntza zerbitzuak oinarri tzat hartuz irizpide sozial eta ingurumen iraunkortasunekoak.
- Ondarretako gazteen aterpetxeari bazkariak, afariak eta gosariak eskuratzeko hornidura.

**Berdintasun irizpideekin** osatutako baldintza-orriak ondoko hauek dira:

- 2016-2020 Donostiako udal haur eta gazte plana egiteko laguntza tekniko zerbitzua.
- Baztertze arriskuan daudenentzat gizarte hezkuntzan eta arlo psikosozialean parte hartzeko zerbitzua.

**Bidezko merkataritzako irizpideak** txertatu dituzten baldintza-orriak honako hauek dira:

- Ondarretako gazteen aterpetxeari bazkariak, afariak eta gosariak eskuratzeko hornidura.
- Elikagai solidoak eta likidoak saltzeko makinak instalatu, mantendu eta ustiatzeko jabari publikoaren erabilera pribatiboaren baimena (Kiroletako Udal Patronatua).

**Gizarteratzeko eta laneratzeko** (Enplegu Zentru Bereziei erreserbatutako partaidetza) **irizpideak** bildu diren baldintza-orriak ondoko hauek dira:

- Udal eraikinen garbiketa zerbitzuak (lote bat).
- Aieteko zalditokiko Topalekua izeneko eraikineko jangela-taberna, atezaintza-administrazioa eta garbitasuna-mantenimendu zerbitzuak (Eman gabe geldituta).

- Ejecución de la unidad de ejecución (actuación integrada a.i.1) del área urbana “lo.05 Txomin Enea”.
- Proyecto de medidas de defensa contra desprendimientos en la zona baja de la ladera sur del monte Urgull.
- Pintado y repintado de ejes viarios y de mantenimiento de la señalización horizontal.
- Reparación, renovación y mantenimiento de los pavimentos de las calles y caminos.
- Autorización para la instalación, mantenimiento y explotación de máquinas expendedoras de alimentos sólidos y líquidos en determinados centros de trabajo del Patronato Municipal de Deportes.
- Servicios de jardinería general y mantenimiento del césped recreativo de varias instalaciones deportivas.
- Servicio de transporte, montajes y asistencia para actuaciones y ensayos del organismo autónomo, con criterios sociales y de sostenibilidad ambiental.
- Suministro de comidas, cenas y desayunos en el Albergue Juvenil de Ondarreta.

Los pliegos que han incorporado **criterios de igualdad** son:

- Servicio de asistencia técnica para elaborar el Plan municipal de infancia y juventud 2016-2020.
- Servicios de intervención socioeducativa y psicosocial para personas en riesgo de exclusión.

Los pliegos que han incluido **criterios éticos relacionados con el comercio justo** son:

- Suministro de comidas, cenas y desayunos en el Albergue Juvenil de Ondarreta.
- Autorización de uso privativo de dominio público para la instalación, mantenimiento y explotación de máquinas expendedoras de alimentos sólidos y líquidos en determinados centros de trabajo del Patronato Municipal de Deportes.

Los pliegos que recogen **criterios de inclusión social y laboral**, reservando la participación en la licitación a Centros Especiales de Empleo son:

- Servicios de limpieza de edificios municipales.
- Servicios de bar-comedor, conserjería-administración y limpieza-mantenimiento del equipamiento Topalekua ubicado en las antiguas caballerizas del Palacio de Aiete (quedó desierto).